

11.000 dolar

Koldo SAGASTI

Urtarrilaren 26an Nazioarteko Justizia Auzitegiak ebazpen historikoa kaleratu zuen Hego Afrikak Israelen kontra jarritako genozidioaren inguruko salaketaren harira. Epaimahaiaren arabera, akusazioak aurkeztutako zantzuak nahikoak ziren deliberatzeko «litekeena dela Israelen Gazako zerrendan burututako ekintzak genozidio-krimen batekin bateragarriak izatea». Litekeena da. Erakundearen epelkeriak ase gabe utzi zituen adierazpen irmoagoa espero zuten asko, eta kezka bat utzi zuen airean: zenbat palestinar ote dira gutxieneko eraildakoen kopurua, genozidioaz hitz egiteko? Zenbat balio du palestinar baten bizitzak?

Duela urte batzuk elkarrizketa egin nion Manu Pinedari, Europar Parlamen-

tuak Palestinarekiko Harremanetarako duen Ordezkaritzako Presidenteari. Oraingo eurodiputatua brigadista zen orduan, Gazako Zerrendan, eta giza ez-kutu lanetan zebilen nekazari gazatarrei babes fisikoa ematen, uzta garaian frantkotiratzailerisraeldarrek akabatu ez zitzaizuten. Berak aitortzen zidan «palestinarren haragiak hutsaren hurrengo balio duela okelaren nazioarteko merkatuetan», eta injustizia horretaz baliatzen zirela ekin-tzaileak euren gorputz europarrak ezku-tu gisa erabiltzeko. Horrek erakusten du palestinar baten bizitzak munduko beste edozein herritarrenak baino gutxiago balio duela, baina ez du argitzen: zenbat balio ote du?

Aste honetan eskaera ezohikoa bezain desesperatua jaso dut. Estatuan bizi den

gazatar batek dirua biltzeko kanpaina abian jarri duela jakinarazi dit, Rafahko ghettoan duen familia ateratzen saiatzeko. Galdezka deskubritu dut azken aldian zenbait enpresa sortu direla bitartekaritza lanak egiten dituztenak zerrenda barruko palestinarrek ateratzeko izapideetan, palestinar horiek ateratzeko eskumena dutenen aurrean, eta nago bi eragile baino ez daudela hori egiteko gai direnak: Egiptorekiko mugako Al Sisiren erregimeneko mugazainak eta Israelgo armadako soldaduak berak. Dena oso legala. Giza bizitzetako merkataritza gupidagabe horiek, gainera, prezioa jarri diete palestinarrei: 11.000 dolar pertsonako. Horixe omen da gizaki bat Gazatik ateratzeak balio duena. Horixe da palestinar baten prezioa okelaren nazioarteko merkatuetan. •

Beti hor daudenak

Amagoia MUJIKATELLERIA

Beti hor daudenak, hor daude beti. Baina beti hor egoteak arrisku bat duela uste dut, «betikoa» bihurtzea. Eta betikoari ez diogu baliorik ematen. «Betiko leloaren betiko leloa», belarri batetik sartu eta bestetik atera. Aurrera begira joaten gara, atzera begiratzeko beharrik sentitu gabe, badakigulako beti hor daudenak hor egongo direla gero ere. Eta bitartean, segi aurrera, itzalean daudenekin ahaztuta; gogoratuko gara behar ditugunean.

Bizitzaren esparru askotan gertatzen da. Nerabearentzat gurasoen aholkuak eta esanak “txapa” hutsa dira. Askotan, gurasoek esaten dutenaren kontrakoa egitea da araua. Total, egoera aldrebestuz gero, konponduko dute gurasoek.

Betiko ile-apaintzaileari ere egokitzen zaizkio egoera traketsak. Beste baten guraizeen esanetara jarri eta emaitzarekin atsekabetuta gerturatzen zaizkion betiko bezeroen kasua, adibidez. «Konponduko didazu egin didaten triskantza? Probatzera joan naiz eta...».

Badira urteak eta hamarkadak kausa baten alde edo beste baten kontra herritarrak lanean ari direla. Komunikabideetan matraka ematea da beren merituen parte bat, baina, askotan, «betikoak» bihurtzen dira eta apenas egiten zaien kasurik.

Alderantziz, badira beti kausa baten ondoan dauden komunikabideak. Noizbait borroka hori modako bihurtzen bada eta ezohiko komunikabideetan oihartzuna lortzen badu, bada arriskua

beti inguruan izan diren kazetariak zerrendan azkenak izatekoa.

Badira edozein ekitalditan aritzeko prest dauden aurkezleak, bertsolariak, abeslariak, dantzariak... auzokoak, herrikoak; beti prest laguntzeko. Gerta daiteke ekitaldi horrek bestelako tamaina hartzea eta orduan, betikoei beharrean, beste batzuei esatea dantzatzeko, kantatzeko, bertsotan egiteko... Zerbaitek sona hartzen duenean, “betikoek” prestigio nahikorik emango ez baliote bezala.

Ez dakit jendartearen joera naturala ote den beti hor daudenak lausotzea, «betikoen» tiraderan sartzea eta beharra dagoenean bakarrik –antsiaz– zabal-tzea kaxoia. Akaso justuagoa, osasuntsuagoa eta eraginkorragoa da tiradera irekita eta bistan edukitzea. •